

2025/2026ko AZTERKETEN DEIALDIA IRAILERA AURRERATZEA MEDIKUNTZAKO 6. MAILARA PASATZEKO. ARAUTEGI ESPEZIFIKOA.

Deialdia aurreratzeko eskaria egiteko ikastegiko webguneko inprimakia bete beharko da (Tramiteak > Medikuntzako 6. mailara pasatzeko deialdia aurreratzea). Inprimaki hori bete eta sinatu ondoren, posta elektronikoz bidaliko da irakasguneko idazkaritzara. Eskariak **2025eko uztailaren 15etik 18ra bidali behar dira**, egun biak barne. Azterketak **2025eko irailaren lehen egunetan** egingo dira.

Irizpideak:

1. Seigarren mailara pasatzeko ezohiko azterketa egin ahal izateko, **gehienez bi irakasgai eduki daitezke gaingitu gabe.**
2. Seigarren mailara pasatzeko ezohiko azterketa egin ahal izateko, **2024/2025** ikasturteko irakasgaien **ohiko eta ezohiko deialdiak agortuta** izan behar ditu ikasleak eta **gutxienez «3» nota lortuta aurretik egindako azterketaren batean.**
3. Azterketa gaingitzen ez duenak 2025/2026 ikasturteko ohiko deialdia agortzen du eta ezin izango da aurkeztu azterketara ikasturte horretako **ezohiko deialdira arte.**
4. 2025eko iraileko deialdi aurreratura aurkeztuko diren ikasleek **ezingo dute eskatu 2025eko iraileko deialdian irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gaingitzea**, ez baitituzte beteko Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiko 29. eta 30 artikuluen arabera bete beharreko baldintzak (agortutako deialdi kopurua).

Prozedura:

- Eskariak jaso ondoren, kasuan kasuko sailetara bidaltzen dira, azterketaren data erabaki dezaten, bai eta azterketa irakasgune bakoitzean egingo den ala denak batera.
- Irakasgai horien matrikula uztailleko ohiko matrikularen epean egiten da, eta, ondoren, ezohiko epe bat irekitzen da idazkaritzan seigarren mailako matrikula aldatzeko, aktak sortu eta gero (urri aldera).
- GRALa adostuta edukita inskribatu ezin baduzu azterketak irailera aurreratzeko deialdiaren zain zaudelako, borondatezko akordiorako ezarritako epean honako datu hauek bidali behar dituzu tecnica.gestion.fme@ehu.eus helbide elektronikora:

- NANA
- Izen-abizenak
- GRALaren izenburua
- Zuzendaria
- Lanaren helburuak
- Egun beharreko lanak

Borondatezko akordiorako ezarritako epean (ikusi GRALaren webgune espezifikoa) erregistroa egin ezean, eskaera ez da kontuan hartuko.

- Azterketak eta kalifikazioak espedienteetara pasatu arte gordetzen dira.